



18/2014 Irizpena

Nafarroako Foru Komunitatean Nekazaritza eta Lorezaintzako eta Lorekonposizioetako oinarritzko lanbide tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen foru dekreturako egitasmoaren gainean.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren batzorde iraunkorrek 2014ko ekainaren 30ean onetsia

<p>Pedro González Felipe jn. Kontseiluburua Ignacio Iriarte Aristu jn. Idazkaria</p> <p>Santiago Álvarez Folgueras jn. Guraso elkarteen federazioetako ordezkarria (HERRIKOA) Pedro María Baile Torrea jn. Guraso elkarteen federazioaren ordezkarria (CONCAPA) Fernando Barainca Lagos jn. Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkarria (FSIE-SEPNA) Iñaki Berasategi Zurutuza jn. Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkarria (LAB) Juan Ramón Elorz Domezáin jn. Hezkuntza Administrazioko ordezkarria J. Jorge Lanchas jn. ANEG-FEREko ordezkarria</p> <p>Bertaratu ez izateagatik desenkusatu dira:</p> <p>José Miguel Gastón Aguas jn. Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkarria (STEE-EILAS)</p>	<p>18/2014 Irizpena</p> <p>2014ko ekainaren 30eko Nafarroako Eskola Kontseiluaren batzorde iraunkorren parte hartu zuten ondoan aipatu ditugun lagunek. Bertan irizpena onetsi zen, aldeko 5 botorekin, kontrako 1ekin eta abstentzio 1ekin, ondoko egitasmoaren gainean: “Nafarroako Foru Komunitatean Nekazaritza eta Lorezaintzako eta Lore-konposizioetako oinarrizko lanbide tituluaren egitura eta curriculumaz ezartzen dituen foru dekreturako egitasmoa”.</p>
--	---

1 - ARAU AURREKARIAK

Aurkeztutako foru dekreturako egitasmoak honako arau erreferentziak ditu:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzkoa.
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntza Kalitatea Hobetzeari buruzkoa.
- 2/2011 Lege Organikoa, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa.

- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.
- 127/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Oinarrizko Lanbide Heziketaren berriazko alderdiak arautzen dituena.
- 1850/2009 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, ikasketa eta lanbide tituluak emateari buruzkoa.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 108/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, mintegi, lorategi eta lorezaintzako zentroetako laguntza jardueri buruzkoa.

2.- ARAUAREN JUSTIFIKAZIOA

Nafar gizartea murgildurik dago gertatzen ari diren aldaketei egokitzeko prozesu batean. Hala, merkatuen globalizazioak, informazioaren gizartearen etengabeko aurrerapenak eta lanbide kualifikazioko eskakizun handiagoek markatutako panorama berri baten aurrean gaude.

Testuinguru honetan, Europar Batasunak enplegurako agintzen dituen estrategia koordinatuek ahalegin berezia egiten dute mugitzeko eta askatasunez zirkulatzeko gai izanen den biztanleria aktibo kualifikatua lortzeko. Eta horren garrantzia berriaz azpimarratzen da Europar Batasuneko Tratatuan.

Azaldutakoagatik, beharrezkoa da Lanbide Heziketaren araudi esparrua berritzea, lanbide kualifikazioen eta lan merkatuko beharren artean lortu nahi den lotura une oro bermatzearren.

Foru dekreturako egitasmo honek, zeinaren bitartez Nafarroako Foru Komunitatean Nekazaritza eta Lorezaintzako eta Lore-konposizioetako oinarrizko lanbide tituluaren curriculumak ezartzen den, gizarte eta araudi esparru berri honi erantzun nahi dio eta, orobat, Nafarroako ikasleen eta merkatuaren beharrei egokitutako curriculumak diseinatuz gauzatzen du hori, aldi berean irakaskuntza berri hauen nahitaezkotasunari erantzunez eta talde lanarekin, erabakiak hartzeko autonomia eta ekimenarekin, lanak gauzatzearekin eta jendaurreko arretarekin zerikusia duten eta lanbidea garatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta pertsonal eta sozialei arreta berezia eginez.

- Beharrezko prestakuntza ematea gure Komunitatean nekazaritzako lanbide arloan dagoen profesional eskaerari erantzuteko. Profesional horiek lore eta

landareekin konposizioak egin ditzakete eta laboreetan eta berotegi edo lorezaintza zentroetan landareak ekoizteko eragiketetan lagundu dezakete.

- Profesionalizazioa eta eguneratzea bermatzea, beren edo besteren kontura, nekazaritza sektorean lan egiten dutenei.
- Eskulan gero eta kualifikatuagoa bermatzea, indarreko araudia eta ezarrita dauden kalitateko, segurtasuneko eta lan arriskuei aurrea hartzeko protokoloak funtzionaltasuna eta ingurumenarekiko errespetua bermatuz aplikatzeko gai izanen dena, taldean lan egiteko jarrera, berrikuntzari irekitako espiritua izatea eta enpresaren bizitzan inplikatzeko balioetsiko direlarik.
- Etengabeko prestakuntza ematea langileei eta, horretarako, lanbide moduluen eskaintza partziala diseinatzea prestakuntza unitateak ezarriz. Horrela, erreferentzia gisa erabiltzen ahal dira, profil profesionala osatu edo eguneratu beharra duten langileen prestakuntzarako.

3.- FORU DEKRETURAKO EGITASMOAREN DESKRIBAPENA

Eskola Kontseiluaren irizpidepeko foru dekreturako egitasmoa osatzen duten atalak hauek dira: zioak, hamaika artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta bost eranskin.

Zioetan aipatzen dira, batetik, araudiko aurrekariak, eta bestetik, alderdi estrategikoak eta arau berriak. Alderdi horiek justifikatzen dute titulu honen egitura eta curriculuma ezarri beharra.

Artikuluen eta xedapenen edukia honako hau da:

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Identifikazioa.
3. artikulua. Lanbide erreferentea eta lanbide jarduna.
4. artikulua. Curriculumua.
5. artikulua. Lanbide moduluak eta prestakuntza unitateak.
6. artikulua. Heziketa zikloan sartzeko bideak.
7. artikulua. Ziklotik beste ikasketa batzuetara sartzea.
8. artikulua. Baliozkotzeak eta salbuespenak.
9. artikulua. Lanbide moduluen eta gaitasun unitateen arteko korrespondentzia.

10. artikulua. Irakasleak.

11. artikulua. Irakaslekuak eta ekipamenduak.

Xedapen gehigarri bakarra. Lanbide trebakuntzak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Beste arau batzuk indargabetzea.

Azken xedapenetako lehena. Ezarpena

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Azkenik, foru dekreturako egitasmoak bost eranskin hauek ditu:

1. eranskina. Lanbide erreferentea.

2. eranskina. Curriculumua.

3. eranskina. Lanbide moduluen eta gaitasun unitateen arteko korrespondentzia.

4. eranskina. Irakasleak.

5. eranskina. Irakaslekuak eta ekipamenduak.

4. FORU DEKRETURAKO EGITASMOAREN TESTUARI BURUZKO BESTELAKO GAIK

Arauko testuari agiri hauek gehitu zaizkio: araudiko memoria, memoria ekonomikoa, justifikazio memoria, antolaketa memoria, generoaren eragineko txostena eta prozedura hasten duen maiatzaren 23ko 49/2014 Foru Agindua.

5. IRADOKIZUNAK ETA OHARRAK

Nafarroako Eskola Kontseiluak bidezkoztat jo du Nafarroako Foru Komunitatean Nekazaritza eta Lorezaintzako eta Lore-konposizioetako oinarrizko lanbide heziketaren egitura eta curriculumua ezartzen dituen foru dekretuaren proposamena.

Horrenbestez, hura tramitatzearen aldeko irizpena eman da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

O. E.
Kontseiluburua,

Idazkaria,

Pedro González Felipe

Ignacio Iriarte Aristu

NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZAKO KONTSEILARI JN.